




IRRATI-IDAZKETA

ESATEKO IDAZKETA




Sintaxiari dagokionez

- Esaldi laburrak, luzeak baino hobeto
- Estilo zuzena
 - Esaldi inbertsonalak baino hobeto, subjektudunak
 - Perifrasiak eta itzulingururik ez
 - Aditz aktiboa pasiboa baino hobeto
 - Nominalizazioak edo izen-egitura nominalizatuak ekidin
 - Ezetz bikoitzeko esaldirik ez
- Esaldi koordinatuak nahiago mendekoak baino



Irrati-diskurtsoaren antolaketa



Euskarazko perpausen orden neutroa eta estandarra honako hau da:

SOA:

Subjektua + Objektua (galdegaia) + Aditza

(mintzagaia) + **SUBJEKTUA + GALDEGAIA + ADITZA**+ (aditzaren gainerako osagarriak)



Subjektuaren lekua


Eredu estandarrean, perpausaren hasieran kokatzen da (aurretik, mintzagaia egon daiteke, subjektua ez denean).

Subjektuaren eta aditzaren artean tarte luzea egon en dadin bi aukera daude:

- A) Aditza aurreratu
- B) Subjektua atzeratu



Galdegaiaren lekua



Eredu estandarrean, aditzaren aurrean doa galdegaia, baina Altubereren legea apurtzen da batzuetan ahozko hizkuntzan:

- a) Galdegaia esaldi konpletiboa denean eta esan, adierazi, azaldu, pentsatu... bezalako aditzekin.
- b) Galdegaiordea edo galdegai faltsua erabilita...
- c) Objektua oso luzea denean, nahiz eta galdegaia izan, ez da komeni aditzaren aurrean jartzea, eta aditzaren ondoren jarriko da... (edo aditza aurreratu).



PUNTUAZIOA



1. KOMA: pausaldi laburra adierazten du
 1. Subjektuaren atzean komarik ez (tarteko osagarriak sartzeko ez bada)
 2. Lokailuak beti komaren artean
 3. Elementuak zerrendatzeko erabili beharra
2. PUNTUA: ideia, esaldi edo pasarte baten amaiera adierazten du
3. PUNTU ETA KOMA: puntuaren balio antzekoa, baina puntual baino bereizketa beheragoko mailan.
4. PARENTESIAK, TARTEKIAK ETA KAKOTXIK EZ




Datuen tratamendua



- Zehaztasuna eta ulergarritasuna datuen tratamenduan
- Hitz abstraktuak baino hobeto, berba konkretuak
- Klitxeak eta esaldi eginak saihestu (hasiera eman, errepassoa egin, gauzak horrela..., zentzu horretan..., eta halakoak).



Datuen tratamendua (II)



Kopuruak, zenbakiak, ehunekoak eta halako datuak oso abstraktuak dira, eta entzun eta berehala ahazten ditu entzuleak.

- Datu estatistikoak edo portzentajeak emateko orduan, entzuleak irudikatzeko moduan eman (konparazioak erabiliz, esaterako).
- Zifra handitan, kopuruak borobiltzea hobeto (mila pertsona inguru, ehundaka lagun bildu..., ia zazpi orduz...) .
- Zifra zehatzak beharrezkoak direnean soilik.



Datuen tratamendua (III)



1. Zenbakiak

- Idazketari dagokionez, Euskaltzaindiaren 7. araua ikusi
- Mila, milioi, bilioi... adierazteko, hitzak erabiltzea hobeto zero askotako zenbaki luzeak baino
- Ez punturik edo komarik tartekatu zenbakien artean
- Zenbaki erromatarrik ez

2. Orduak


- Ohiko mintzoan esaten dugun moduan esango dira (bost t'erdia eta ez 17:30ean)

3. Siglak eta akronimoak

- Oso ezagunak direnean edo hitz arrunt bihurtu direnean soilik erabiliko dira (RENFE; HIES...)
- Salbuespena: ahozkaezinak direnak (EAE.)



Datuen tratamendua (IV)



4. Laburdurak eta ikurrak

- Idatzizko testuetan erraz irakurri arren, oztopo izan daitezke irрати-testuan. Hobeto hitz osoa erabiltzea laburdura edo dagokion ikurra baino.

5. Pertsonak eta karguak

- Aposizioen inguruan, Euskaltzaindiaren 109. araua ikusi.

6. Protagonisten azalpenak eta iritziak

- Irratian ez dago kaketzen artean beste norabaiten iritziak edo hitzak bereizirik. Beraz, besteen hitzak protagonisten ahotik grabatu, eta ez testualki esan.

